

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Jose Angel Petralanda Gil  
Itziar Martínez Iregui  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko apirilaren 24an, arratsaldeko seietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Urzelai andrea eta Urrutia, Akizu eta Merino jaunak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del día 24 de abril de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten la Sra. Urzelai y los Srs. Urrutia, Akizu y Merino.

Gai zerrendako lehen gaia aztertu aurretik, Alkate jaunak ongietorria egin die bilkura aretora etorritako Eskoriatzako ikastetxeetako ordezkari guztiei.

## **1.- ESKOLA AGENDA 21: 2010/2011 IKASTURTEKO PROPOSAMENEI ERANTZUNAK**

Garapen Jasangarri batzorde informatzaileak ondorengo diktamena egin du Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleek 2010/2011 ikasturtean Eskola Agenda 21 programa barruan egin zituzten proposamenei buruz:

### **DIKTAMENA**

	<b>ESKAERA</b>	<b>GAUR EGUNGO EGOERA</b>
1	Herritik pasatzen diren kotxeen abiadura murriztea.	Kudeaketa planean aurreikusita dago abiadura moteltzeko zeharrik gortuak jartzea. Ekonomikoki posible denean, proiektu hau aurrera eramango dugu.
2	Ordu batzuetan trafikoa bariantetik bideratzea kalea oinezkoentzako gera dadin.	Kudeaketa planean jasota dago eta aukera hau aztertuko da. Ekonomikoki posible denean, proiektu hau aurrera eramaten saiatuko gara.
3	Dorletatik pasatzen den bidegorrian dauden babes gardenetan txoriak ipini, babesaren aurka jo ez daitezten.	Kudeaketa planean txertatu eta ekintza hau burutuko dugu.
4	Zarata murrizteko babesak leku gehiagotan jarri. Babesik ez dagoen lekuetan aztertu zein izan daitezkeen babesik egokiena.	Aztertuko da non den beharrezkoa eta Foru Aldundiari bideratuko zaio eskaera, berak bait du eskumena gai honetan.
5	Herritik pasatzen den autopista tartean babesak jarri.	Eskaera hau jadanik bideratu diogu Foru Aldundiari, berak baitu eskumena gai honetan.
6	Kotxeak erabiltzeko ordutegi bat zehaztu.	Kudeaketa planean jasota dago erdiko kalea, egun eta ordu batzuetan, oinezkoentzat murriztea. Konpontzeke dagoen arazoa garraio publikoen desbideratzea da, egun ez baita posible garraio publiko beste bide batetik bideratzea. Egungo egoera ekonomikoak ez digu uzten, baina ekonomikoki posible denean proiektu honi ekingo diogu.
7	Bidegorria herrian bertan egon dadila, errepidean. Horretarako, kotxeen abiadura murriztu beharko da.	Teknikoki ez da erreza, errepidearen zabalera dela eta. Dena dela, aurreko puntuan deskribatutakoaren harira (oinetakoentzat murriztea erdiko kaleko zirkulazioa), posible izango litzateke bizikletendako errail/bide bat proposatzea.
8	Zarata gehiegi dago eta murriztu egin behar da, kotxeena batez ere.	Kotxeen erabilpena murrizteko sentsibilizazio kanpainak egingo dira.
9	Argi kutsadura saihesten duten farola eta bonbillak jartzea herri guztian zehar.	Prozesu hau martxan da. 2012 urteko helburua orain arte egin diren aldaketek emandako emaitza aztertzea da, aurrera begira hartu beharreko estrategia erabakitzeko.
10	Farolak piztuta dauden denbora gutxitzea, bai goizean eta baita gauean ere.	Udala badabil hau aztertzen eta egokia den lekuetan aldaketak egiten. Adibidez, gauez argiztatzeko diren eraikinetan tenporizadoreak jarri dira.
11	Ikerketa bat egitea kaleko argi kontsumoa hobeagoa izan dadin.	Ikerketa hau aurretik egin da eta bertan zehaztutako ekintzak aurrera eramaten gabiltza.
12	Gaztelekuan, liburutegian, Luis Ezeiza Herri eskolan eta batez ere Kulunkan dauden eremu elektromagnetikoen eta irratifrekuentzien neurketa egokia egitea eta saihestea.	Momentuz ez da neurketarik egitea aurreikusten. Hala ere, udalak badu neurketa hauek egiteko beharrezkoak diren tresnak eta eskuragarri jarriko ditu neurketa hauek egin ahal izateko.

Alkateak, Iregui andrearen laguntzarekin eta jasotako diktamenaren arabera, egindako eskaera bakoitzari buruz Udalak hartutako konpromisoen berri eman die bertaratutako guztiei.

## **2.- ESKOLA AGENDA 21: 2011/2012 IKASTURTEKO PROPOSAMENAK**

Hitza eman ondoren, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleen ordezkariak 2011/2012 ikasturte honetan Eskola Agenda 21aren barruan elikadurari buruz Udalbatzarrari egiten dioten proposamena aurkeztu diote Udalbatzarri.

Proposamen hori akta honen eranskin gisa doa.

Gai zerrendako gaiak aztertuta, Alkateak eskerrak eman ditu egindako lanarengatik eta adierazi du egiten diren ekarpenak oso baliagarriak direla Udalarentzat. Proposamenak banan-banan aztertzeko eta horiei buruzko erabakiak hurrengo plenoren baten hartzeko konpromisoa hartu du

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura arratsaldeko 18:25 minututan.  
Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut**

# ESKORIATZAKO UDALARI PROPOSAMENAK

## ELIKADURA



Arratsalde on denoi:

Azken urteetan, bezala, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleok, Eskola Agenda 21 programaren bidez, gure herriko ingurumenaren egoera aztertzen aritu gara.

Aurten ELIKADURA JASANGARRIAREN hainbat aspektu landu ondoren, udal honi zenbait proposamen egitera gatoz.

Hona hemen gure lanaren ondorioak:

Hasteko LHko LEHENENGO ZIKLOKOAK azalduko dute beraiek egindakoa.

LEHENENGO ZIKLOKO ORDEZKARIAK:

Kaixo,

Gu lehenengo zikloko ikasleak gara eta Museoan GOSARI OSASUNTSUA landu genuen. Gero Eskoriatzako Okindegi eta Fruta dendatara joan ginen, beraiek saltzen dituzten produktuak nongoak ziren galdetzeko. Ikusi genuen batzuk oso urrunetik datozela eta bidean, gure ingurumena kutsatzen dutela.

Hau dela eta udal honi eskaera hauek egin nahi dizkiogu:

- Gure ingurua zaintzeko, gure herritik hurbil egiten diren produktuak erosteko esatea Eskoriatzakoei.
- Herriko dendetan bertako produktuak saltzea bultzatzea.
- Dendariei, etiketa gabeko elikagaien jatorria nolabait adierazi dezatela eskatzea.

Mila esker zuen arretagatik.

1. eta 2. mailako ordezkariak

Orain BIGARREN ZIKLOKOAK.

Arratsalde on guztioi:

Eskoriatzako Ikastetxeetako 3. eta 4. mailako ikasleen ordezkariak gara. Guk munduko hainbat herrialdeetan jaten dena, jaten gastatzen dena eta janariaren inguruan sortzen den zaborra aztertu genuen museoan.

Gero herriko harategi, arrandegi, fruta denda eta okindegi eta belar dendetara joan ginen gero, gutxien gastatzen duten herrialdeetako diruarekin (0,80€ Chaden eta 3,23€ Butanen) zer erosi daiteken ikusteko.

Honen aurrean, udalari honako konpromisoak eskatzea erabaki genuen:

- **Hondakin gutxiago sortzen duten produktuak erostera bultzatzea.**
- **Etxeetara, ontzi eta poltsa berrerabilgarriak bidaltzea horrela zabor gutxiago sortuko da eta gure erosketak merkeagoak izango dira.**
- **Lurralde pobretuetara janaria bidaltzeko kanpaina gehiago egitea.**
- **Diru partida bat sortzea herrialde pobretuei bidaltzeko.**

Gure eskaerak kontuan izango dituzuelakoan, eskerrik asko.

3. eta 4. mailako ordezkariak.

LHkoekin bukatzeko HIRUGARREN ZIKLOKOAK.

Kaixo denoi,

Guk, 5. eta 6. mailako ikasleok, jaten duguna sasoikoa den aztertu genuen museoan eta gero herriko hainbat ortu ikustera joan ginen, bertatik bertara sasoikoak ziren produktuak zeintzuk ziren ikusteko.

Hau egin eta gero, Eskoriatzako Udalari zera eskatzen diogu:

- **Herritarrek sasoiko produktuak erostera bultzatzea.**
- **Baserritarrei diru laguntzak ematea.**
- **Hilean behin feria bat antolatzea baserritarrek beraien produktuak saltzeko.**

Eskaera hauek guztiak kontuan hartuko dituzuelakoan, aurrez mila esker.

5. eta 6. mailako ikasleak.



DBH LEHENENGO Mailakoen txanda da orain.

Arratsalde on,

DBH 1. mailako ikasleok Elikadura burujabetza kontzeptua landu dugu. Urteetan zehar Eskoriatzako lurren erabilpena aztertzea egokitu zaigu eta honetarako, museoan Eskoriatzako bi ortofoto aztertu ditugu, bata 1954koa eta bestea 1.983koa.

Azterketa honetan herria bi zatitan banatu dugu eta konparaketa egin dugu bi argazkien artean. Gaur egungo egoera, herrian zehar egindako ibilbide batez aztertu dugu, eta atera dugun ondorioa hau izan da: Eskoriatzako lurraren erabilpenean eraikuntzari eman zaiola lehentasuna argi eta garbi.

Hau ikusita eta ELIKADURA BURUJABETZAK duen garrantzia ikasi ondoren, udaletxe honi ondoko proposamena egiten diogu:

- **Zuen planetan kontutan izan dezazuela, lur eremu gehiago sortzea nekazaritzarako.**

DBH 1. mailako ikasleak

Eta bukatzeko DBH 3. mailakoena.

Kaixo,

DBH 3. mailako ikasleak gara eta guk ere elikadura landu dugu aurten. Oso gai zabala izanik, guk ELIKADURA BURUJABETZA ETA ELIKADURA SEGURTASUNA landu ditugu. Honetarako beste ekintza batzuen artean, baserri bat bisitatzera joan gara, naturarekin bat doan nekazaritza zertan datzan ikusteko. Bertan, kontsumo taldeei buruz hitz egin digute.

Museora bueltatu eta Eskoriatzako otarren berri ere eduki dugu.

Ikusitakoaren arabera, ondorengo eskatzen diogu udalari:

- **Eskoriatzan kontsumo taldeak bultzatu ditzala eta bere funtzionamendua erraztu.**

Mila esker

DBH 3. mailako ikasleak

#### **BUKAERA:**

Honekin gure aurtengo lana bukatzen dugu, eta zuei pasatzen dizuegu txanda. Arratsaldeon eta eskerrik asko.

Antes de tratar el primero de los asuntos incluidos dentro del orden del día, el Alcalde da la bienvenida a todos los representantes de los centros escolares de Eskoriatza que se hayan presentes en el Salón de Plenos.

### **1.- AGENDA ESCOLAR 21: RESPUESTA A PROPUESTAS DEL CURSO ESCOLAR 2010/2011**

En relación a las propuestas que en el marco del Programa Agenda Escolar 21 hicieron los alumnos de los centros escolares de Eskoriatza durante el curso 2010/2011, la Comisión Informativa de Desarrollo Sostenible ha elevado el siguiente dictamen:

#### **DICTAMEN**

	SOLICITUD	SITUACIÓN ACTUAL
1	Reducir la velocidad de los coches que pasan por el casco urbano.	En el plan de gestión está previsto colocar pasos de cebra elevados para reducir la velocidad. Se realizará en el momento en que sea económicamente posible.
2	Durante algunas horas desviar el tráfico por la variante para que la calle quede para los peatones.	Está recogido en el plan de gestión y se estudiará esta opción. Intentaremos realizarlo en el momento en que sea económicamente posible.
3	Colocar pegatinas de pájaros en las protecciones transparentes del bidegorri a su paso por Dorleta, para que los pájaros no se golpeen contra ellas.	Se integrará en el plan de gestión y se realizará esa acción.
4	Colocar protectores para reducir el ruido en más lugares. En los lugares en que no haya protectores analizar cual puede ser la protección más adecuada.	Se analizará dónde es necesario y se encauzará la solicitud a la Diputación Foral, que es a quien le compete este tema.
5	Instalar protectores en el tramo de autopista que pasa por el pueblo.	Esta solicitud ya la hemos encauzado a la Diputación Foral, que es a quien le compete este tema.
6	Concretar un horario para usar los coches.	En el plan de gestión está recogido limitar la calle principal en ciertos días y horas sólo para los peatones. El problema que queda por resolver es el de la desviación del transporte público, ya que hoy en día no es posible desviar el transporte público por otra carretera. La actual situación económica no nos lo permite, pero cuando sea posible económicamente comenzaremos a trabajar este proyecto.
7	Que el bidegorri esté en el pueblo, en la carretera. Para ello habrá que reducir la velocidad de los coches.	Técnicamente no es sencillo debido a la anchura de la carretera. Así y todo, al hilo de lo descrito en el punto anterior (limitar la circulación de la calle principal a los peatones), sería posible proponer un carril para bicicletas.
8	Hay demasiado ruido y hay que reducirlo, sobre todo el de los coches.	Se realizarán campañas de sensibilización para reducir el uso del coche.
9	Colocar en todo el municipio farolas y bombillas que eviten la contaminación lumínica.	Este proceso está en marcha. El objetivo para el 2012 es analizar los resultados de los cambios realizados para decidir la estrategia a adoptar para el futuro.
10	Reducir el tiempo en que estén encendidas las farolas, tanto por la mañana como por la noche.	El Ayuntamiento ya lo está analizando y realizando los cambios en los sitios adecuados. Por ejemplo, en los edificios que se iluminan de noche se han colocado temporizadores.
11	Realizar un estudio para mejorar el consumo de luz en la calle.	Esta investigación ya está hecha y estamos llevando a cabo las acciones que en ella se concretan.
12	Realizar una medición adecuada y evitar los campos electromagnéticos y radiofrecuencias en el Gazteleku, la biblioteca, en la escuela pública Luis Ezeiza	El Ayuntamiento dispone de los instrumentos necesarios para realizar esas mediciones y las pondrá a disposición, para que puedan hacerse las mediciones.

y, sobre todo, en Kulunka.	
----------------------------	--

El Alcalde, con la colaboración de la Sra. Iregui, y de conformidad con el dictamen emitido, da cuenta a todos los presentes de los compromisos que adquiere el Ayuntamiento en relación a cada una de las solicitudes cursadas.

## **2.- AGENDA ESCOLAR 21: PROPUESTAS DEL CURSO ESCOLAR 2011/2012.**

Concedida la palabra, representantes de los alumnos de los centros escolares de Eskoriatza presentan al Pleno la propuesta que en este curso escolar 2011/2012 hacen a la corporación en el marco del programa Agenda Escolar 21 y que versa sobre la alimentación.

Dicha propuesta se une como Anexo a la presente acta.

Tratados los asuntos incluidos dentro del orden del día, el Alcalde agradece la labor realizada y manifiesta que las aportaciones que se hacen son de gran utilidad para el propio ayuntamiento. Adquiere el compromiso de analizar una por una cada una de las propuestas y resolver sobre las mismas en un próximo pleno.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:25 minutos. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

# PROPUESTAS AL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

ALIMENTACIÓN



Buenas tardes:

Como todos los años, el alumnado de Eskoriatza hemos analizado la situación medioambiental de nuestro pueblo dentro de la Agenda 21.

Este año después de haber trabajado distintos aspectos de la ALIMENTACIÓN SOSTENIBLE, venimos ha hacer unas cuantas propuestas a este Ayuntamiento.

He aquí los resultados de nuestro trabajo:

Para comenzar, los alumnos del PRIMER CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA nos explicarán lo que ellos han hecho.

#### REPRESENTANTES DEL PRIMER CICLO:

Hola,

Somos alumnos del primer ciclo y en el museo trabajamos el tema del DESAYUNO SALUDABLE. Después fuimos a las fruterías y panaderías de Eskoriatza, para preguntar de dónde proceden los productos que venden. Pudimos ver que algunos productos proceden de muy lejos y que en el trayecto contaminan nuestro medio ambiente.

Por todo ello pedimos al ayuntamiento:

- Que para cuidar nuestro entorno, se diga a la gente de Eskoriatza que consuma productos producidos cerca.
- Animar a los comercios a vender productos autóctonos.
- Que se pida a los tenderos que se indique la procedencia de los alimentos que no tengan etiqueta.

Muchas gracias por vuestra atención.

Representantes de 1º y 2º curso.

Ahora, los del SEGUNDO CICLO.

Buenas tardes:

Somos los y las representantes de 3<sup>er</sup> y 4<sup>o</sup> curso de los colegios de Eskoriatza. Hemos estudiado en el Museo lo que se come en distintos países del mundo, lo que se gasta en comer y los residuos que genera.

Después fuimos a las carnicerías, fruterías, panaderías y herboristería del pueblo a averiguar lo que se puede comprar aquí con el dinero que gastan los países que menos gastan en comer (0,80 € en Chad y 3,23 € en Butan).

Ante ello, solicitamos al Ayuntamiento que tome las siguientes medidas:

- **Animar a consumir productos que generan menos residuos.**
- **Enviar envases y bolsas reutilizables a las casas para generar menos residuos y abaratar así nuestras compras.**
- **Hacer más campañas para mandar comida a los países empobrecidos.**
- **Crear una partida para mandar dinero a los países empobrecidos.**

Esperando que toméis en consideración nuestras propuestas, muchas gracias.

Representantes de 3<sup>er</sup> y 4<sup>o</sup> curso



Para terminar con los alumnos de primaria, los del TERCER CICLO.

Hola,

El alumnado de 5º y 6º curso analizamos en el Museo si lo que comemos es de época o no, y después fuimos a visitar algunas huertas del pueblo, para ver in situ cuáles son los productos de ésta época.

Después de haber hecho esto, pedimos lo siguiente:

- **Animar a los eskoriatzarras a consumir productos de época.**
- **Dar ayudas a los y las baserritarras.**
- **Organizar una feria una vez al mes para que los y las baserritarras puedan vender sus productos.**

Esperando que toméis en consideración todas las peticiones, muchas gracias por anticipado.

Alumnos de 5º y 6º curso.

Es el turno de los alumnos de primer curso de ESO.

Buenas tardes,

En relación a la alimentación, a los alumnos de 1º de ESO nos ha tocado trabajar el concepto de Soberanía Alimentaria. Hemos analizado el uso que se ha dado a la tierra en Eskoriatza y para ello, hemos analizado ortofotos antiguas, una de 1954 y otra de 1983. Para completar nuestro trabajo, hemos visto la situación de hoy día dando un paseo por el pueblo. Comparando las tres situaciones, la conclusión a la que hemos llegado ha sido que en Eskoriatza se ha priorizado la construcción a cualquier otra cosa.

Después de haber aprendido la importancia que tiene la soberanía alimentaria, proponemos al Ayuntamiento lo siguiente:

- **Que se tenga en cuenta en vuestros planes el crear más tierra para la agricultura.**

Alumnos de 1º de ESO

Y para finalizar, los alumnos de 3º de ESO.

Hola,

Somos de 3<sup>er</sup> curso de ESO y también hemos analizado este año la alimentación. Al ser un tema muy amplio, hemos analizado al SOBERANÍA ALIMENTARIA y SEGURIDAD ALIMENTARIA. Entre otras cosas, hemos ido a visitar una huerta para estudiar qué es la agricultura acorde con la naturaleza. Allí nos han hablado de los grupos de consumo.

Cuando volvimos al Museo, también nos enteramos de cómo funciona el tema de las cestas en Eskoriatza.

Solicitamos al Ayuntamiento lo siguiente:

- Que impulse en Eskoriatza las grupos de consumo y facilite su funcionamiento.

Muchas gracias.

Alumnos de 3º de ESO

Con esto finalizamos el trabajo de este año y os pasamos el turno a vosotros. Buenas tardes y muchas gracias.